

Marijesiak

Marijesiak berez ez dira baladak, balada erlijiosoakaz, batez be jorratzen daben gaiari jagokonez, hartuemonan izan arren. Marijesiek Gabon aldian egiten ziran eske-rondetan dabe jatorria, hau da, eske-koplak ditugu.

Alvaro Rabelli |

Eske-koplak izan arren, baladak lez, eduki narratiboa dauke. Puntu biko ahapaldietan istorio bat kontetan jaku, Jesusen jaiotzagaz zerikusia daukan argumentua, izan be. Historia sagaratua da azaltzen dana, Adan eta Ebarengandik hasi eta Jesusen jaiotzara arte, Amabirjinaren anuntziazioa, Herodes, Hiru Erregeen etorrera... Halanda be, esan daigun bi dirala baladetatik bereizten dabezan ezau-garriak, bata egiturazkoa eta bestea eginkizuna. Baladek ez lez, ahapaldi bakotxaren akabuan bada guztietan errepikatzen dan lelo bera, «Maria Jose, Jesus Maria».

Baina beharbada koplak horreen eginkizuna izango da Marijesien ezaugarri behinena. Marijesiak, esan lez, bat datoz Euskal Herri osoan Gabon aldian kantatu izan diran kantuakaz (oles-koplak, Iparraldeko Noelak...). Marijesien ohitura hau, azken baten, Gabon inguruko ospakizunaren bederatziurrena egiteko zan, historia sagaratua kantuz azaltzea, hatan be.

Lehenago zabalago ebilzan, ia Bizkaiko txoko guztietan lekukotasunak gorde dira (hemen agertzen diran koplak Markinan jasoak dira) baina gaur egun osperik handien hartu dabenak Gernikan urteoro herriko gazteek egiten dabezanak dira. Marijesiotan gazteek egiten daben ibilbidea alde aurretik ondo finkatuta dago. Errondan urteteko dagozanean, goizaldeko orduetan, gazteak eleizaren atarian alkartu eta belauniko jartzen dira. Berehala hasten dabe erronda, aurrean koblaria

OKERRAK ZUZENTZEN	
OKER	ARTEZ
* Lau aulki ipini dira mahaiaren inguruan. * Bihar arte ez da jakingo emaitzik.	- Lau aulki ipini dabez mahaiaren inguruan. - Bihar arte ez dogu jakingo emaitzik. Oharra: Idazterakoan batez be, gaztelaniaren eraginez inpersonalera joteko ohiturea daukagu.

dala. Honek koplak bat kantatu eta taldeak atzetik erantzun. Kantatzeko erabiltzen diran koplak eta doinuak aldatuz doaz Gabon eguna hurbildu ahala. Gaur Gernikan bonbardaketaren inguruko koplak be nahasten dabez. Erronda goizeko orduetan amaitu ohi da, bederatzi egunez errepikatzen da eta azkena egun horretako mezagaz batera Gabon egunekoak da, guztietan bereziena.

Gabonak dira eta edeidazu atiau ikusi daigun jaio dan infantia.
Maria Jose, Jesus Maria.

Abendu santo onetan Kristoren jaiotzian kontentuen alde guztiak poz gaitian.
Maria Jose, Jesus Maria.

Adan formatu izan zan lenengo lurrian, pekatu egin eban paraisu eternalian.
Maria Jose, Jesus Maria

Bear zala bialdu lurrera aingerua erremediatzeko Adanen pekatua.

Maria Jose, Jesus Maria.
Trinidad altuko bigarren personia trasformaturik dago Belengo portalian.
Maria Jose, Jesus Maria.
Herodes erregia falso traidoria zeren damu eben Jesusen jaiotza
Maria Jose, Jesus Maria.

Herodes koitadue burladu zaitue erregeak joan dira zu ikusi gabe.
Maria Jose, Jose Maria.

Herodesek esa'utsen erregeari gabien emendik zetoze la neu ere joan naitian.
Maria Jose, Jesus Maria.

Iru errege mauak ain bide luzian ostantu artun eben ain etxe pobrian.
Maria Jose, Jesus Maria.

Meltxorrek urria, Gasparrek intzentsua, Baldasarrek eroiela mirra preziosua.
Maria Jose, Jesus Maria.

Astoak arrantzia, idiak arnasia, alan berotzen eben jaio dan infantia.
Maria Jose, Jesus Maria.

Belengo portalian estalpe batian jaio da Jesus ona abereen artian.
Maria Jose, Jesus Maria.

Bai belenen da bai Belenen jaio da Jesus Nazaren.

Nazareteko tenpluan dago dama eder bat jarririk
Nazareteko tenpluan dago dama eder bat jarri-
rik
izena bere Maria dauko ondo graziaz
beterik.

MIKEL ARTETXE TXIRRINDULARIA



«Kanpoko ziklistek badakie zer dan euskerea»

Izaskun Basterretxea |

Mikel Artetxe txirrindulariak laugarren denporaldia hasi dau Euskaltel-Euskadigaz. Larrabetzukoak da bera, eta egunotan, Circuit de la Sarthe joateko entrenetan dabil. Profresinoletan lortutako garaipenei begira, Portugalen lortu zituan lehenengoak: Journal de Noticias itzuliko etapa bi eta itzulia bera irabazi zituan, 2000n. Eta igaz, Andaluziako azkenengo etapea irabazi eban.

■ Euskal Herriko Itzulian ez dozu parte hartuko. Eta Euskal Bizikletan?

Hori oraindino ez dakit. Hemendik pare bat hilabetera esango deuste. Ikusi egin behar zelan gabilzan. Horren arabera, esaten deuskue.

■ Euskal Herrian parte hartzeko gogorik badozu?

Bai. Hemendik 1.000 kilometrorra edo hemen, etxe alboan, ibiltea ez da bardina. Beresia da. Hemen gauzak ondo egiteko gogo handiagoa eukiten dogu, zaletuak hurrigo dagoz eta.

■ Euskal Herriko Itzulian ganean zelako pronostikoa egingo zenduke?

Nik pentsetan dot italiarrak nahiko ondo ibiliko dirala, Giroa laster da eta. Gure taldean, Alberto Martinezek be aukera asko eukiko ditu. Dana dala, bost egun dira, bostak gogorak, eta eguraldia be kontuan hartu behar da.

■ Kanpoko ziklistek eza-gutzen dabe euskerea?

Bai, gehienek bai. Ganera, Britainian be gure antzeko sentimendua daukie. Eta Hollandan eta Belgikan be antzerakoa gerteten da. Gehienek badakie gure taldea Euskadikoa dana, eta badakie hemengo egoerearen barri.

IRAKURBIDEAK

Arduraduna ■ Alvaro Rabelli

Erabagi gatxa

(...) Gau baten, telefono dei bat jaso neban, Unibertsitateko ikaskidea neban Rudolfek, nirekin berba egin ebala-ta. Batu gineneke, kafetegi lasai baten, hotz-hotzean arpegiratu eustan: judu odola neroiala zainetan, eta diru-truke baino ez nebala bizia salbatuko, parte emotea bere eginbeharra zalako. Une batez ez ulertuarena egin neban, baina azalpen harek nire izatearen oinarri guztiak astindu ebazan, gogorkeriz. Orduan aurkitu neutsen erantzuna, memorian gordeta neukan galdera zahar ilunei, behinola konprenitu ezinik geratu ziranak. Alde egin gura neban zurrupatzaile harengandik, baina esandakoa egiaztatzeko, bere eginkizunaren zehaztasunak emoten hasi jatan, partiduko funtzonaria izanik, lanbidea ikerketa jenealojikoak egitea ebala jakin arazoz.

Neukazan asmo eta amets guztiak azukrea uretan bezala desegin jatazan, zati-zatika azkeneraino urtuz. Urtenbiderik aurkitzen ez nebanez, ordaintzea erabagi neban, behin baino izango zalakoan. Baina basapizti harek ondo baino hobeto baekian bere menpean nengoana, eta diru eskaerak gero eta usuago jasaten nebazan. Nire egoera ekonomikoa itogarria bilakatzten joakidan eta, horrez gainera, neure izerdiz lortutako ospea haren gutziaren esku egoan, baita, are txarrago, nire bizia bera ere. Salbabide baten beharrean nengon. Lehengo asteetan, bezeroen kasuak nahasten nituala konturatu ziran. Gero, kalera urtetzen ez nebala ta hormari begira aurkitzen ninduen sarritan. Bulegoan itxiarazo eus-

ten, eta nire keinuak ume kaletarren barre-garri izaten ziran. Dantzatzen idoro ninduen Solingeneko iturri ornatuetan behin baino gehiagotan, eta animalien hizkuntzetan mintzatzen bere.

Goiz eder baten Rudolf Hütte tiroz josi neban, mila begi izutuen aurrean, Solingeneko kalerik nagusienean eta segituan umeen abestiak hasi nintzen kantatzen, barreka. Lau hilabeterako gorde ninduen zoro-etxean. Laster aske itxi eta lurralde honetara etorri nintzan, abokatu legez jardun, eta ez-kondu.

Zoriontsu bizi izan naz urte guzti honeetan

'Ipuin arinak' liburuko Aitorpena ipuinetik jasoa.

Egilea: Javier Gorozitza.

Argitaletxea: Labayru ikastegia.